



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## PRENTSARAKO OHARRA

# BIZKAIKO BATZAR NAGUSIAK, OSASUN ETA KULTUR ARLOKO PRODUKTUEN BEZ TXIKITZEN DAUEN DEKRETUA ONETSI DABE

- **Apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege-Deketuaren transposizioa da.**
- **Bizkaiko Batzarrek ez ditue onetsi Bizkaiko gizarte eta egoitza eredian eta fiskalitatean aldaketak bilatzen ebezan EH Bildu eta Elkarrekin Bizkaia taldeen mozinoak.**

(Bilbon, 2020ko bagilaren 24an). Bizkaiko Batzar Nagusietako osokoak kontrako boto barik onetsi dau Bizkaiko lurraldeko Balio Erantsiaren Zerga (BEZ) aldatzen dauen maiatzaren 26ko foru dekretu arau emolea, osasun eta kultura arloetako produktuak eskuratzea merketzeko. Aldaketa horren bitartez, apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege-Dekretura egokituko da eta, hori dala eta, Covid-19aren osasun larrialdia dala eta, zerga horretan “preminazko neurri osagarriak” sartzan ditu, José María Iruarrizaga Ogasun eta Finantzetako foru diputatuak azaldu dauenez. BEZ zergan egin dan aldaketa horrek “produktuzino eta gizarte sareari euskarria emon gura deutso” eta, aldi berean, “jarduera ekonomikoa ahalik eta azkarren berreskuratzen lagundu” gura dau, “larrialdi egoerea desagertu eta segiduan”.

Holan, osasuneko materialaren banaketeari jagokonez, ehuneko zero BEZ karga ezarri da garagarriaren 31ra arte. Karga hori, “hartzaileak erakunde publikoak, irabazi asmo bakoak eta ospitaleak diran holango ondasunen barruko banaketei, inportazioei eta Europako Batasun barruko eskuratzei” aplikauko jake.

Ganera, BEZ zergaren erregimen sinplifikauaren hiru hilebetz behingo kuotaren ordainketa zatituak kalkuletako orduan be aldaketak sartuko dira, 2020ko zergaldian deitu dan alarma egoerea dala eta.

Kultureagaz eta informazioagaz erlazioautako produktuei jagokonez, horreek be izango dabe BEZ zergaren jatsierea. Konfinamendua dala eta herritarrek kultureagaz eta informazioagaz erlazioautako produktu gehiago eskatu dabenez, liburu, egunkari eta aldizkari digitalei apliketan jaken kargea ehuneko 4ra murriztuko da, eta holan baztertu egingo da zerga kargei jagokonez liburu fisikoaren eta liburu elektrikoaren artean egoan diskriminazioa.

Amaitzeko, enpresa txikien eta ertainen erregimena malgutzeko, kendu egingo da hiru urtez Balio Erantsiaren Zergaren erregimen berezi sinplifikauari eta nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako erregimenari uko egiteko ezarten



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

dan hiru urteko derrigorrezko loturea. Holan, posible izango da 2021ean erregimen horreek barriro apliketea.

Batzarretako talde guztiek onetsi dabe Balio Erantsiaren Zergan egin dan aldaketea, EH Bilduk izan ezik. Testuaren eukiagaz ados egon arren, bere abstentzinoagaz tributu horretan dagon “eskumen faltea” “salatu” gura izan dau.

## EREDU SOZIALAREN ETA EKONOMIKOAREN ALDAKETEAK

Ostean, eztabaidea, Bizkaiko eredu sozialean eta ekonomikoan egin beharreko aldaketara bideratu da, EH Bildu eta Elkarrekin Bizkaia taldeek planteauta. Eztabaideari hasierara emoteko, Eneritz de Madariaga azken talde horretako bozeroaleak, Mozino baten bitartez, aldaketea eskatu dau Aldundiaren gastuaren lehentasunetan, aurrekontuen aldaketa baten bitartez, bere berbetan, urteko kontuak “ez diralako gizarte arloko preminei erantzuteko gai”. Hainbat inbertsino, Lamiakoko itsasadar azpiko errepidea edo Bizkaiko Torrea, beste batzuen artean, alde batera iztea eskatu dau, izan be, proiektu biek hartzen dituen ia 20 milioi euroak “herritarrak erreskatetako erabili daitezke”. Inbertsino horreek “enpleoko politikak garatzera, zerbitzu publikoak indartzera, gizarte arloko inbertsinoak autortzera, pobreziaren, gizarte arloko desbardintasunen eta gizarteko bazterkeriaren kontra burrukea egitera eta izaera ekologiko eta trantsizinoko indartsua daukan jarduera ekonomikoa bultzatzera” bideratu daitezke. Ekimena ez da onetsi, kontrako 33 botogaz (EAJ-PNV eta PSE-EE), aldeko 16gaz (EH Bildu eta Elkarrekin Bizkaia) eta abstentzino bigaz (PP).

Kritikak, Mozinoari baiezkoa emon ez deustien hiru taldeetatik etorri dira. Amaya Fernández PPko bozeroalearen eretziz, talde morearen ekimena, beste herrialde batzuetan “beherantz sozializetako” balio izan dauen eta “gizartearen eta ekonomiaren aldetik aurrerapen txikiagoa” ekarri dauen “formula ezaguna” da. “Ez da egia Foru Gobernuak ez dituala kontuan herritarren lehentasunak”, erantzun dau Ekain Rico sozialistak, Aldundiaren politika “guztiak” “enpleoko politiketara eta politika sozialetara eta ekonomiaren garapenera” dagozalako zuzenduta, eta kritikau egin dau talde morearen programea dala “herritarren alde” dagon “bakarra” sinistuarazo gura jakela herritarrei. Jon Andoni Atutxa bozeroale jeltzalearentzat, barriz, Elkarrekin Bizkaiaaren mozinoa, Aldundiko Aurrekontu “osoaren aurreko zuzenketa-eskea” da, eta hori daborduko eztabaidatu eta baztertu da Batzar Nagusietan. EAJ-PNV taldeko ordezkariak “erradikaltasunetik” urtetako eskatu deutso talde moreari, “dana edo ezebez, zuria edo baltza” eskatzen dauelako, eta “aurrera egiteko akordioak behar diralako”.

EH Bildu izan da Elkarrekin Bizkaia taldearen mozinoaren alde agertu dan bakarra, Arantza Urkaregiren eretziz “betiko errezetek ez dabelako balio”. Kudeaketea “esparru publikoko zainketak” aldatuko dituen gizarte politketan zentrauko dauen aldaketa soziopolitikoak eskatu dau, “arlotan horretan lanpostu



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

gehiago eta hobeto ordaindutakoak sortuz eta mendekotasunaren edo gure nagusien zainketan kalidadeko zerbitzu sarea antolatuz”.

## FISKALITATEA

Ostean eztabaidatu dan Mozino baten bitartez, koalizino abertzaleak “progresibidadean” oinarritutako aldaketa fiskala eskatu dau, diru-sarrera gehiago lortzeko eta Covid-19ak eragin dituan behar gehiagori erantzun ahal izateko. “Gehien daukienak jagokena ordaindu daien, eta hori une honetan ez da gertatzen”, esan dau Arantza Urkaregik. Ekimena ez da onartu, kontrako 35 boto (EAJ-PNV, PSE-EE eta PP) eta aldeko 16 (EH Bildu eta Elkarrekin Bizkaia) izan ditualako.

Zehatzago esanez, koalizino abertzaleak, gaitasun ekonomiko handiagoa daukien personei eta enpresei zuzendutako COVID tasea” ezartea defendidu dau, “zerga zuzenen kargak aldi baterako eta pausuz-pausu handituz”. Urkaregik fiskalitatea “aldatzeko proposamenak” aurkezteko be eskatu deutso Aldundiari, COVID-19aren pandemiaren eragina ebaluau ostean.

Elkarrekin Bizkaia taldeak bat egin dau aldaketa fiskalaren teoria horregaz. Tasa jakin bat izan behar barik, edo datu gehiago euki arte itxaron barik, talde horrek fiskalitatean aldaketak “atoan” apliketea eskatu dau. “Pazientzia eskatzen deuskue, baina ez dakit zeren zain egon behar dogun neurriak hartzeko”. “Ez neuke gura hauteskunde inguruko kalkuluarengaitik izatea”, esan dau Xabier Benitok.

Euskal Sozialistak taldeak, fiskalitatea aldatu aurretik “errealidade barri hori” ezagutu behar dala esan dau eta, zehatzago esanez, Europako funtsen zenbatekoa eta osasun arloko krisi horrek diru-bilketan izango dauen “benetako” eragina. Ekain Rico batzarkideak, Euskadiko erakundeen sareko “zerbitzu publikoak barriro antolatu behar dirala” esan dau, inbertsino publikoaren “ahalik eta eraginkortasun handiena lortzeko”. Covid-19a, “gura doguzan zerbitzu publikoak zeintzuk diran eta zelan finantzauko diran” gaiaren inguruan “ondo pentsautako gogoatea” egiteko “inflexino puntua” da.

Modu berean, Euzko Abertzaleak taldeak adierazo dauenez, Foru Gobernua une honetan jaso beharreko datuak batzen ari da beharrean, osasun, ekonomia eta gizarte arloko ondorioen “argazkia” egiteko. Jesús Lekerikabeaskoa ordezkariak, epe laburrean baliabideak jasoteko Ogasun eta Finantzetako foru diputatuak kontroleko azkenengo osokoan defendidu ebana hartu dau oinarri moduan, hau da, “zorrak hartu, Europako funtsen banaketan parte hartu eta Kupoa txikitu”, Gobernu zentralaren neurri ekonomikoak konpentsetako.

ADINEKOEI EMOTEN JAKEN ARRETAREN GANEKO EZTABAIDEA



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

Beste Mozino baten bitartez, EH Bilduk aldaketak eskatu ditu lurraldeko egoitzen eremuan, pandemiak adinekoen zentroetan izan dauen eraginaren ebaluazinoa eginez. Oposizionoko talde nagusiak, Aldundiak Bizkaiko Batzarretako Gizarte Ekintzako Batzordera eta adinekoentzako egoitzetan inplikauta dagozan sektoreetara (beharginak, egoiliarak, egoiliarren senideak, enpresa kudeatzaileak eta jaubeak...) Bizkaiko egoitzen ereduak daukazan "puntu ahulen eta indartsuen" ganeko gogoetea bideratzea eskatzen eban. Horrez gain, proposamen hori, "Age Platform Europe" izenekoagaz sinatutako hitzarmenetik sortutako adituen taldera bideratzea be eskatzen eban.

Ekimenak Elkarrekin Bizkaia taldearen aldeko eretxia jaso dau, baina ganerako taldeak kontra agertu dira. EAJ-PNV, PSE-EE eta PP taldeek iragarri dabenez, bagilaren 5ean erregistrau zan arauz besteko proposamen bat eztabaidatuko da aurrerago. Bertan, alde batetik, Gizarte Ekintzako foru sailari, hilebeteko epean, covid-19ak egoitzetan izan dauen eraginaren ganeko txostena eskatzea, eta, bestetik, txosten hori Batzarretako talde guztiei bideratzea planteauko dabe, lurraldeko egoitzak bultzatzeko eta hobetzeko neurriak hartzeko. Hiru taldeek, euren ekarpenen bitartez akordio horregaz bat egiteko eskatu deutsee EH Bildu eta Elkarrekin Bizkaia taldeei.



## NOTA DE PRENSA

# EL PLENO DE LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA APRUEBA EL DECRETO QUE REDUCE EL IVA DE PRODUCTOS SANITARIOS Y CULTURALES

- **Se trata de una transposición del Real Decreto-Ley 15/2020, de 21 de abril.**
- **El Parlamento de Bizkaia tumba mociones de EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia que perseguían cambios en el modelo social y de residencias de Bizkaia, y en la fiscalidad.**

(Bilbao, a 24 de junio de 2020). El pleno de las Juntas Generales de Bizkaia ha aprobado sin ningún voto en contra el Decreto foral normativo, de 26 de mayo, que modifica el Impuesto sobre el Valor Añadido (IVA) en territorio vizcaíno para lograr abaratar la adquisición de productos sanitarios y culturales. Esta modificación supone adaptarse al Real Decreto-Ley 15/2020, de 21 de abril, e incorpora, por tanto, “medidas urgentes complementarias” en este impuesto derivadas de la emergencia sanitaria del Covid-19, según ha explicado el diputado foral de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga. Este cambio en el IVA “pretende dar soporte al tejido productivo y social”, y a su vez, “facilitar que la actividad económica se recupere en cuanto empiece a remitir esta situación de emergencia”.

Así, en lo que respecta al suministro de material sanitario, se establece un tipo impositivo del IVA del cero por ciento hasta el 31 de julio, aplicable a las entregas “interiores, importaciones y adquisiciones intracomunitarias de este tipo de bienes cuyos destinatarios sean entidades públicas, sin ánimo de lucro y centros hospitalarios”.

Asimismo, se introducen cambios en el cálculo de los pagos fraccionados de la cuota trimestral del régimen simplificado del IVA como consecuencia del estado de alarma declarado en el período impositivo 2020.

En cuanto a los productos culturales e informativos, éstos también se benefician de una rebaja en el IVA. Teniendo en cuenta que el confinamiento ha hecho incrementar la demanda de productos culturales y de información de la ciudadanía, se reduce al 4 por ciento el tipo impositivo aplicable a los libros, periódicos y revistas digitales eliminando así, la discriminación existente en materia de tipos impositivos entre el libro físico y el libro electrónico.

Finalmente, para flexibilizar el régimen de pymes y autónomos, se elimina la vinculación obligatoria que durante tres años se establece para la renuncia al régimen especial simplificado y al régimen especial de la agricultura, ganadería



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

y pesca del Impuesto sobre el Valor Añadido, pudiendo volver a aplicar dichos regímenes en el ejercicio 2021.

Todos los grupos junteros han votado a favor de estos cambios, excepto EH Bildu que, pese a estar conforme con el contenido del texto, ha querido “denunciar” con su abstención la “falta de competencia” en este tributo.

## CAMBIO DE MODELO SOCIAL Y ECONÓMICO

A continuación, el debate ha girado hacia un cambio en el modelo social y económico de Bizkaia que planteaban los grupos EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia. La portavoz de este último grupo, Eneritz de Madariaga, ha abierto la discusión demandando, a través de una Moción, un cambio de “prioridades” en el gasto de la Diputación mediante una modificación presupuestaria, porque las cuentas actuales, según ella, “no pueden dar respuesta a las urgencias sociales”. Ha pedido eliminar inversiones como el subfluvial de Lamiako o la Torre Bizkaia, casi 20 millones de euros entre los dos proyectos, que podrían servir para “rescatar a la ciudadanía”. Ha pedido reorientar estas inversiones a “desarrollar políticas de empleo, fortalecer los servicios públicos, reconocer derechos sociales, a la lucha contra la pobreza, las desigualdades y la exclusión social y al impulso de la actividad económica con un fuerte carácter ecológico y de transición”. La iniciativa ha sido rechazada por 33 votos en contra (PNV y PSE-EE), 16 a favor (EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia) y 2 abstenciones (PP).

Las críticas han llegado desde las filas de los tres grupos que no han dado el sí a la Moción. Para la portavoz del PP, Amaya Fernández, la iniciativa del grupo morado es una “fórmula conocida” que en otros países ha servido para “socializar hacia abajo”, y que ha conllevado “menos progreso social y económico”. “Es falso que el Gobierno foral no tenga en cuenta las prioridades de la ciudadanía”, ha respondido, por su parte, el socialista Ekain Rico, al defender que “todas” las políticas de la Diputación están enfocadas a “las políticas de empleo y políticas sociales, y al desarrollo económico”, criticando, asimismo, que traslade a la sociedad que “solo” el programa del grupo morado defienda a la ciudadanía. Por su parte, para el portavoz jeltzale, Jon Andoni Atutxa, la moción de Elkarrekin Bizkaia “supone una enmienda a la totalidad” al Presupuesto foral, algo que ya fue debatido y rechazado en las Juntas Generales. El portavoz del PNV en la Cámara vizcaína ha pedido al grupo morado que salga de la “radicalidad”, ya que piden “el todo o nada, el blanco o negro” y “para avanzar se necesitan acuerdos”.

EH Bildu ha sido el único grupo que ha apoyado la moción de Elkarrekin Bizkaia, ya que para Arantza Urkaregi “no sirven las recetas de siempre”. Ha pedido un cambio socioeconómico que centre su gestión en políticas sociales que modifiquen “los cuidados en el ámbito público, con la creación de más puestos de trabajo en este ámbito, con mejor remuneración, y la creación de



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

una red de servicios de calidad en temas de dependencia o de cuidados de nuestros mayores”.

## FISCALIDAD

A través de una Moción, debatida a continuación, la coalición abertzale ha pedido un cambio fiscal basado en la “progresividad” para conseguir mayores ingresos y atender un mayor número de necesidades como consecuencia de la Covid-19. “Para que quienes más tienen, paguen lo que les corresponde, algo que no ocurre ahora”, ha sostenido Arantza Urkaregi. La iniciativa ha sido desestimada por 35 votos contrarios (PNV, PSE-EE y PP) y 16 favorables (EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia).

En concreto, la coalición abertzale ha defendido la implantación de una “tasa COVID”, dirigida “a las personas y empresas con mayor capacidad económica, incrementando de forma provisional y progresiva los tipos impositivos de los impuestos directos”. Urkaregi ha pedido también que la Diputación presentase “propuestas de modificación” de la fiscalidad, tras evaluar el impacto de la pandemia.

A esta teoría del cambio fiscal se ha unido Elkarrekin Bizkaia. Sin tener por qué ser una tasa determinada o esperar a tener más datos, este grupo ha pedido cambios “ya” en la fiscalidad. “Nos piden paciencia pero no sé a qué tenemos que esperar para tomar medidas”. “Espero que no sea por un cálculo electoral”, ha dicho Xabier Benito.

El grupo juntero Socialistas Vascos ha pedido, antes de cambiar la fiscalidad, conocer “esa nueva realidad” y, concretamente, saber el montante que tendrán los fondos europeos y el impacto “real” que esta crisis sanitaria provocará en la recaudación. Su juntero Ekain Rico ha defendido, además, “una ordenación de los servicios públicos” en el entramado institucional vasco, “para conseguir una máxima eficacia” de la inversión pública. El Covid-19 es un “punto de inflexión” para volver a hacer una “reflexión meditada” de “cuáles son los servicios públicos que queremos y cómo se financian”.

En esta misma línea, el grupo Nacionalistas Vascos ha defendido que el Gobierno foral esté ahora trabajando para recopilar los datos necesarios y hacer una “foto” de las consecuencias de esta crisis sanitaria, económica y social. Su representante Jesús Lekerikabeaskoa se ha apoyado en lo que ya defendió el diputado foral de Hacienda y Finanzas en el último pleno de control para obtener recursos a corto plazo, es decir, “endeudarse, participar en el reparto de los Fondos Europeos, y minorizar el Cupo” como compensación a las medidas económicas del Gobierno central.

## DEBATE SOBRE LA ATENCIÓN DE LOS MAYORES



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

Por medio de otra Moción, EH Bildu ha pedido cambios en el modelo de residencias del territorio, en base a una evaluación del impacto de la pandemia en los centros para personas mayores. El principal grupo de la oposición quería que la Diputación trasladase a la Comisión de Acción Social de la Cámara vizcaína y a sectores implicados en los centros residenciales para personas mayores (trabajadores y trabajadoras, residentes, familiares de residentes, empresas gestoras y propietarios...), una reflexión sobre las “debilidades y fortalezas” del modelo residencial de Bizkaia. Asimismo, buscaba que se trasladase esta propuesta al grupo de expertos y expertas bajo el convenio suscrito con "Age Platform Europe".

La iniciativa ha contado con el apoyo de Elkarrekin Bizkaia, pero ha sido tumbada por el resto de grupos. PNV, PSE-EE y PP han anunciado el futuro debate de una proposición no de norma, registrada el 5 de junio, en la que plantean, por un lado, pedir al departamento foral de Acción Social elaborar un informe, en el plazo de un mes, del impacto del covid-19 en las residencias, y, por otro, trasladar ese informe a todos los grupos junteros para que puedan tomar las medidas de impulso y mejora de los centros residenciales del territorio. Los tres grupos han pedido a EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia sumarse con sus aportaciones a este acuerdo.